



Arantzazu 1940–1950eko hamarraldixan

Aspalditxoko argazkixa izan arren, ezagun da, bai, erakusten doskun paisajiori Arantzazu dala. Gerra osteko lehenengo hamarkadan ataratako fotografixia dogu. Laister, baiña, 1950etik aurrera, majo aldatuaz fango ziran elizia, kolejixua eta inguruak. Elizia zihero barriztau zan: zaharra bota eta gaur egun ikusi geikien basilika modernua jaso zan ixa hogeie urteko lanaldi luze, nekoso eta korapillatsuan. Eta harrezkero be euki dittu beste ikutu eta aldakuntza batzuk.

Gerora, pelotaleku, kolejixo eta aparkelu barrixak haruntzatxuago modutu ahala, argazkixan eskumaldian agerketan diran erai-kin batzuk epe desbardiñetan eretsi egin zittuain. Komentuari be, nahiz eta kanpotik antzeko itxuria mantenidu, hainbeste denporan, barrikuntza eta birmoldaketa ugari erantsi otsain barrutik. Aurrekaldian daguen hospederixiak kanpotik nahiz barrutik izan dittu aldaketa sakonak; eta eskumarago agiri dan Goiko Benta ostatu-jatetxiari barrutik egin xakon kanbixorik nabarmenenak.

Gerra ondorengo urte latz eta triste hareittan be faten zan jentia Arantzazu, Aloña eta Urbixaruntza. Ez eguen gaur aiñako kotxe eta komenetzariak, baiña oiñez edota Oñatiarreneko autobusetan, ttarra-ttarra, igoten euen goraiño. Erlijiñuak inddar eta eragin izugarrixa eukan sasoi hareittan. Aittaketako modukua da 1946ko zemendixaren 16xan Oñatiko kaletik Arantzazuraino eratu zan peregrinaziño famaia, gizaldi bat lehenago egin zana gogoraketako: izan be, 1834an, lehenengo gerrate karlistan, Arantzazu erre egin euen liberalak eta Amabirjiñiaren imajiña Bidaurretako elizan egon zan hamabi urtian. Kixkaldutako eta zela-baitt konpondutako eliza haretara 1846xan Andra Mariren irudixa bueltau euenian, millaka oñatiarrek hartu euen horretan parte, mende bat beranduagoko peregrinaziñuan gertatu zan letxe.

Fotografixako mendixak eta basuak, normala danez, aldatu dira gutxien. Aurrez-aurre dittugu Uztao eta Aitzabal tontor zorrotzak eta atzerago Bitoriano Gandiaga poetiak hainbeste maitte eben Artasoko pagadui magikua. Etzan Arantzazuko fraidia bakarra izan, jakiña, paraje menditsu hareik estimaitten. Oñatiko eta beste leku batzuetako makiña bat herrittar saiaketan zan goialdeko bakardadian billaketan, hala moduz, behe-rago topaitten ez zittuan babesa, lasaittasuna eta bakia. Gerran galtzaille suertau ziranak, batez be.

J. E.

Argazkixa Donostiako *Manipel* enpresia atara eben 1940-1950eko hamarkadan, Oñatiko hamar fotografixaz osotutako sorta politt batian. Guri Iñaki Galdos adiskidiak eskuratu dosku. Milla esker!

Oharra: Mari Anjeles Urteagak ziurtau doskunez, fan dan garagarrilleko (uztaila) katekisten argazkixa San Martinen atarata dago 1955eko garagarrillaren 16xan; eta, bere ustez, goixeneko illaran eskumako azken aurrekua Juanita Uribetxeberria izan leike, baiña eztago hain seguru. Eskerrik asko Maria Anjeles eta Anton Urteagari!